

## **2019KO IRAILAREN 17AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (EKAINAREN 15EKO, UZTAILAREN 9KO ETA UZTAILAREN 24KO AKTAK).

2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

3.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

## **1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (EKAINAREN 15EKO, UZTAILAREN 9KO ETA UZTAILAREN 24KO AKTAK).**

Alkateak, 2019ko ekainaren 15eko, uztailaren 9ko eta uztailaren 24ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

## **2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 010/0519 erabakia, maiatzaren 16koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 011/0519 erabakia, maiatzaren 16koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 012/0519 erabakia, maiatzaren 16koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 013/0519 erabakia, maiatzaren 16koa, 14 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza 3) onartuz; guztira 60.476,83 euro.
- 014/0519 erabakia, maiatzaren 21ekoa, Arantzelai baserrian lanak egiteko baimena emanaz.
- 015/0519 erabakia, maiatzaren 23koa, udaleku irekietako dinamizatzaileen zerrenda onartuz.
- 016/0519 erabakia, maiatzaren 24koa, Santa Barbara 9 etxeko lanen barnean aurkeztutako eskaera onartuz. Egite epeen aldaketa.
- 017/0519 erabakia, maiatzaren 24koa, Santa Barbara 9 etxeko lanen barnean aurkeztutako eskaera onartuz. Egite epeen aldaketa.
- 018/0519 erabakia, maiatzaren 24koa, Santa Barbara 9 etxeko lanen barnean aurkeztutako eskaera onartuz. Egite epeen aldaketa.
- 019/0519 erabakia, maiatzaren 24koa, Santa Barbara 9 etxeko lanen barnean aurkeztutako eskaera onartuz. Egite epeen aldaketa.
- 020/0519 erabakia, maiatzaren 28koa, bateraezintasun eta jarduteko ezintasunei buruzko erregistroa eratzea onartuz.
- 021/0519 erabakia, maiatzaren 28koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 022/0519 erabakia, maiatzaren 28koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 023/0519 erabakia, maiatzaren 30ekoa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 024/0519 erabakia, maiatzaren 30ekoa, Goierri Kirol Teknikoak enpresari gimnasioko kuoten ondorioz eta igerilekuen abonuen likidazioa dela eta ordaindu beharreko zenbatekoak eskatuz.
- 025/0519 erabakia, maiatzaren 31koa, 15 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza 4); guztira 38.425,78 euro.

- 05/0619 erabakia, ekainaren 13koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, familia ugarien titular izateagatik, honako onuradunen zerrenda onartuz, dagokion hobaria ezarri.
- 06/0619 erabakia, ekainaren 13koa, Olanan auzoko festei buruzko baimena eman.
- 07/0619 erabakia, ekainaren 13koa, 18 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 2) onartuz; guztira 14.118,99 euro.
- 08/0619 erabakia, ekainaren 13koa, Ostatuaren ustiapen fakturak onartuz (maiatza).
- 09/0619 erabakia, ekainaren 18koa, ibilgailuen zergan bajak onartuz.
- 010/0619 erabakia, ekainaren 18koa, ibilgailuen zergan itzulketak onartuz.
- 011/0619 erabakia, ekainaren 18koa, "Goierriko eskalatzailen elkartearen eskalada eta ingurumena zainduz" klubari baimena eman beraren estatutuarekin higiezin hori klubaren helbide sozial moduan agertzeko.
- 012/0619 erabakia, ekainaren 20koa, 19 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 3) onartuz; guztira 37.338,95 euro.
- 013/0619 erabakia, ekainaren 27koa, 20 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 4) onartuz; guztira 35.763,09 euro.
- 014/0619 erabakia, ekainaren 27koa, Iñaki Aramendia Auza jaunak, Maria Auza Azurmendi anderearen izenean, Elizalde 5 kalean kokatzen den San Bartolome Kooperatibaren jarduerari buruz, zenbait galdera eginez eta informazioa eskatuz idatzia aurkeztu zuen. Espedienteari hasiera emateko ebazpena.
- 01/0719 erabakia, uztailaren 1koa, Donejakue Bideko Peregrino Etxearen lanak egitea esleituz.
- 02/0719 erabakia, uztailaren 2koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 03/0719 erabakia, uztailaren 2koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 04/0719 erabakia, uztailaren 2koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 05/0719 erabakia, uztailaren 2koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 06/0719 erabakia, uztailaren 2koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.

- 07/0719 erabakia, uztailaren 2koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 08/0719 erabakia, uztailaren 4koa, Alkate-ordeen izendapena eginez.
- 09/0719 erabakia, uztailaren 4koa, Toki-Gobernu Batzarreko kideen izendapena eginez.
- 010/0719 erabakia, uztailaren 4koa, Alkate-aginpideen eskuordetza eginez.
- 011/0719 erabakia, uztailaren 4koa, 21 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila) onartuz; guztira 67.042,58 euro.
- 012/0719 erabakia, uztailaren 4koa, Aitxuri Herri Eskolako aldagelak egokitzeko lanen hirugarren ziurtagiria onartuz, 15.277,60 eurokoa (BEZ barne).
- 013/0719 erabakia, uztailaren 5koa, NED SUMINISTRO GLP S.A.U. enpresari 2019 ekitaldiaren 1.seihileko epeari dagokion ERABILERA PRIVATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ordaindu dezala errekerituz.
- 014/0719 erabakia, uztailaren 11koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 015/0719 erabakia, uztailaren 11koa, Izaera Nazionaleko Funtzionarioekin Idazkari plaza betetzeko deialdiaren barnean Gipuzkoako Foru Aldundiari proposatzea deialdia hutsik geratu dela aitortzea.
- 016/0719 erabakia, uztailaren 16koa, kreditu aldaketa bideratzea aginduz.
- 017/0719 erabakia, uztailaren 23koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 018/0719 erabakia, uztailaren 23koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 019/0719 erabakia, uztailaren 23koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 020/0719 erabakia, uztailaren 23koa, Ostatua eta Kasinoko fakturak onartuz.
- 021/0719 erabakia, uztailaren 23koa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 022/0719 erabakia, uztailaren 30ekoa, udal langileen ordainsarien ordainketa onartuz.
- 023/0719 erabakia, uztailaren 30ekoa, 22 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila 2) onartuz; guztira 96.699,34 euro.
- 01/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, Toki Goxo etxeko behean zatiketa baimena emanaz.

- 02/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 03/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, obra-handien lan baimena ematea onartuz. Buztinkale 8 eraberritu.
- 04/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, Segurtasuna enpresari, Aitxuri Herri Eskolako patioan burutuko diren adierazitako lanen osasun eta segurtasun koordinazioa esleitzea.
- 05/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, jaietako baimenak bideratuz (hanburgesa postuak).
- 06/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, jaietako baimenak bideratuz.
- 07/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, jaietan ukatutako eskaerak onartuz.
- 08/0819 erabakia, abuztuaren 1ekoa, lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapen zerrendak onartuz.
- 09/0819 erabakia, abuztuaren 27koa, , Zegamako Donejakue Bideko Peregrino Etxea egiteko lana burutzeko aurkeztutako Segurtasun eta Osasunari buruzko plana onartuz.
- 010/0819 erabakia, abuztuaren 28koa, 26 zenbakidun fakturen erlazioa (abuztua) onartuz; guztira 64.964,28 euro.
- 01/0919 erabakia, irailaren 5ekoa, 3/2019 kreditu aldaketa kontabilizatzea aginduz.
- 02/0919 erabakia, irailaren 5ekoa, Zegamako Donejakue Bideko Peregrino Etxea egiteko lana burutzeko aurkeztutako Segurtasun eta Osasunari buruzko plana onartuz (Egoin).
- 03/0919 erabakia, irailaren 5ekoa, 24 zenbakidun fakturen erlazioa (iraila) onartuz; guztira 26.715,91 euro.
- 04/0919 erabakia, irailaren 10ekoa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 05/0919 erabakia, irailaren 10ekoa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 06/0919 erabakia, irailaren 10ekoa, obra-txikien lan baimena ematea onartuz.
- 07/0919 erabakia, irailaren 10ekoa, "Ill Ascensión Vegana Aizkorri" antolakuntzan eskatutakoa onartuz.
- 08/0919 erabakia, irailaren 12koa, San Bartolome Kooperatiba jardueraren titularrari errekerituz honen egoera arauen barruan jar dezan. Horretarako sei hilabeteko epea emango zaio.

- 09/0919 erabakia, irailaren 17koa, egurra ateratzeko lanak bideratzeko, bidea erabiltzeko baimena emanaz.
- 010/0919 erabakia, irailaren 17koa, egurra ateratzeko lanak bideratzeko, bidea erabiltzeko baimena emanaz.
- 011/0919 erabakia, irailaren 17koa, biztanleen ofiziozko baja onartuz.

### 3.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), aurreko egun bateko ferian, bizilagun batek Ertzaintzarekin arazoak eduki zituela adierazten du, erosketak egiteko ibilgailua plazan sartzeagatik. Alkateak erantzuten du Ertzaintzak badaliela karga-deskargarako ibilgailuak plazan sartu daitezkeela. Zentzu honetan, gaia doakienekin aztertuko dela adierazten da.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasorarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

#### Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019ko .....k .....

**O.E./ VºBº**  
**ALKATEAK/EL ALCALDE**

#### Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2019.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**